
O N O M A S T I C O N V A S C O N I A E

15

JOSÉ LUIS ORMAETXEA LASAGA

ARRASATEKO
T O P O N I M I A



E U S K A L T Z A I N D I A

1996

O N O M A S T I C O N V A S C O N I A E



ARRASATEKO UDALA



En la edición de esta publicación colabora

*Arrasateko Udalak
eta
KUTXA Fundazioak
babesturiko liburukia*

Liburu-Sortaren Zuzendaria / Director de la Colección: Endrike Knörr
Aholkularigoa / Consejo Asesor: Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordea /
Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca

Buru: Endrike Knörr

Idazkari: Mikel Gorrotxategi

Kideak: Andrés Iñigo

Alfonso Irigoien

José Luis Lizundia

Patxi Salaberri

Juan San Martín

José María Satrustegi

© Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia

Plaza Barria, 15

48005 Bilbo

Tel.: 94-415 81 55

Faxa: 94-415 81 44

Legezko Gordailua / Depósito Legal: VI-189/96

I.S.B.N.: 84-85479-79-3

Fotokonposaketa / Fotocomposición: Concepto 10 Publicidad
Iparragirre, 15-behea
20001 Donostia

Inprimaketa / Imprenta: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4
Vitoria-Gasteiz

Eraketa / Diseño: Enric Mir i Malé

Nire gurasoei
eta laguntza eman didaten guztiei,
bereziki, Arrasateko baserritarrei.

AURKIBIDEA

AURKEZPENA11
SARRERA	13
HITZAURREA (1)	15
HITZAURREA (2)	16
1.- AZTERTUTAKO EREMUA	17
2.- HELBURUAK	17
3.- METODOLOGIA	18
3.1.- Toponimoen bilketa	18
3.1.1.- Iturri idatziak	18
3.1.2.- Ahozko bilketa	19
3.2.- Normalizazioa	20
3.2.1.- Objektu geografikoekiko sarrera-irizpideak	21
3.2.2.- Hizkuntz irizpideak	21
4.- LANAREN AURKEZPENA	24
5.- INFORMATZAILEAK	25
6.- LABURDURAK	27
7.- BIBLIOGRAFIA	27
7.1. Erabilitako dokumentazioa	27
7.1.1.- Arrasateko Udal Artxiboa	28
7.1.2.- Beste artxiboetako dokumentuak	30
7.2.- Erabilitako iturri bibliografikoak	31
7.3.- Bibliografia orokorra	32
 HIRI BARRUA	35
BEDOÑA	87
GARAGARTZA	101
GESALIBAR	167
MEATZERREKA	213
MUSAKOLA	249

Agian, osatu ere egin ahal izango duzu(e), irakurle(ok). Ez dut uste autorea jeloskor sentituko denik. Ia, bada, Takolo eta Galarra, esate baterako, ez dakiola inori ezezagun egin. Ez eta Oliatxikipoto edo Kizkitxara ere.

Xabier Zubizarreta Lasagabaster,
Arrasateko alkatea

SARRERA

HITZAURREA (1)

Azterketa edo lan baten hasierak bakarrik du data ziurra. Arrasateko toponimiaren bilketa-lana egiten 1990eko udazkenean hasi nintzela esan dezaket, urte horretako Maritxu Kajoi egunean (arrazoi anitzengatik niretzat hain berezia izan zen eguna) Arrasateko Udaleko batzorde batek azterketa hori egiteko beka niri ematea erabaki zuenetik egun batzueta. Zehatzago banintz, hamalau bat urte lehenago lan horretan hasia nintzela aitorrtu beharko nuke. Bainan lizentziatura-tesina izan asmo zuen lanak ez zuen amaierarik ezagutu, eta han gelditu zen karpeta triste batean zokoratua. Jose Letona zenduak Arrasateko Udal Artxibo zaharra arakatzeko eman zidan laguntza gogoratu beharko nuke, edo Oñatiko Unibertsitateko artxibari zen On Jose Maria abadeak (mundu honetatik aldeginan, hora ere) luzaturikoa, edota baserritarrek eskainiriko informazioa...

Gaztaroko alferkeria oraindik lagun badut ere, oraingoan hartutako konpromezuak idiari adarretatik heltzera behartu nau. Ez dakit ondo oratzen asmatu dudan, baina ahaleginik ez eginaren damurik ez dut bederen. Esan bezala, hasiera ezaguna bada ere, ez da erraza jakitea bukaera noiz emango zaion honelako lan bati. Bainan emandako epeak beteak ziren eta planto egin beharra zegoen. Eta halaxe egin dut. Bestalde, urte t'erdian lan honi hainbeste ordu eskaini izanak akidura ere ekarria zeukan berekin...

Alabaina, guk bukaera hau eman badiogu ere, lan hau ez dago bukatua, ez. Ongi dakit nik horrela dela. Dokumentazio historikoari dagokionez, askotxo dago aztertu barik geratu dena. Horren azterketak leku-izen gehiago eta jasoak dauden lekukotasun eta zehaztapen gehiago ekarriko ligukeela ez dago esan beharrak ere. Eta aberatsa da paper zaharretan ezkutatua dagoen altxorra. Ahozkoaz ere berdintsu. Batu direnak gutxi ez badira ere, oraindik badago zer bildu. Informatzaile gehiagoren gana jo beharko litzateke, zenbait toponimo gehiago kontrastatu, zalantzak argitu...

Bestalde, hiri-toponimia edo toponimia urbanoa gaingiroki baino ez dugu aztertu. Gura duenarentzat badago oraindik lanik, beraz.

Oraindik esatekorik datekeen arren, ez nuke nahi hitzaurre hau larregi luzatzea.

Azken berbak, halarik ere, zorrak ordaintzeko. Bereziki eskertu nahi ditut hain eroaren handiz jasan nauten laguntzaileak, baserritarrak gehienak, inoiz lana eta beti beren denbora niri laguntzeagatik sakrifikatu dutenak. Eskerrak eman gura dizkiot Arrasateko Udaleko Euskara-arduraduna den Jose Felix Diaz de Tuestari, nirekiko izan duen jarrera ireki eta eskuzabalagatik. Ezin ditut aipatu gabe utzi Patxi Salaberri Muñoa lankide eta adiskideak eskainitako aholku onak. Eta nire eskerrik beroenak ere Ander Ros adiskideari, datuak informatizaterakoan luzatu didan laguntza eskergagatik.

1992ko apirila

HITZAURREA (2)

1992ko apirilean nioenez, Arrasateko toponimiaren azterketa momentuz bukatutzzat eman banuen ere, paper artean eta herritarren artean oraino jaso barik geratzen zen altxorra ez zen txikia.

Lana Udalari eman ondoren, Euskara Zerbitzuak zenbait kopia egin zituen eta biblioteka eta instituzio batzuetara bidali. Häuen artean Euskaltzaindira. Hilabete batzuk geroago (1993ko urtarrilean), Euskaltzaindiko Onomastika batzordeak nik egindako lana aztertu eta zenbait iradokizun egin zituen, bibliografiari eta normalizazioari zegozkienak. Bibliografia dela eta, oso beharrezkotzat jotzen zuen Juan Carlos Guerraren artxiboa, nik, besteren artean, aztertu gabe utzi nuena. 1993ko udazkenean Arrasateko udalak 4 hilabeteko beka luzatu zidan aurreko lana osatzeko.

Eta azken urte luze honetan, beraz, horretan aritu naiz. Alde batetik, Arrasateko Monterreron Udal Liburutegian dagoen Juan Carlos Guerraren artxibo mikrofilmatua aztertu dut. Erdi Aroko dokumentu interesgarri ugari dago artxibo horretan. Gainera, Monterreron-en bertan dagoen Jose Letonaren artxiboa ere arakatu dut, oso zehatz ez bada ere. Bestetik, Eusko Ikaskuntzak argitaraturiko *Colección Documental del Archivo Municipal de Mondragón. Tomo I (1260-1400)* liburua eta oraindik argitaratu gabe baina transkribatua dagoen dokumentazioa ere aztertu dut. Egia esateko, material hau kontuz hartzekoa dela uste dut, maizkara toponimoak ez baitaude zuzen transkribatuak. Dokumentu zaharrenetarako fidagarriago iruditu zait Gonzalo Martínez Díez eta besteren liburua (ik. bibliografia). Hauetz gain, Oñatin den Gipuzkoako Protokoloen Artxibategi Historikoan ere zenbait dokumentu miatu ditut (Hip. 9, Hip. 10) eta beste iturri bibliografikoren batzuk ere bai.

Honekin guztiarekin aurreko lana osatu ahal izan da, batez ere toponimo berri mordoska bat eta lehen jasotako lekukotasun gehiago eta zaharragoak lortuz.

Ahozko bilketari doakionez berba bi: bigarren txanda honetan zoritzarrez arlo hau ez dut ia jorratu. Salbuespen bakarra lehen umezurtz gelditu zen Hiri barrua izan da, gehiegiz sakondu ez badut ere.

Normalizazioaz den bezainbatean, oraingoan lehen baino sistematizazio handiagoaz jokatzen saiatu naiz, ziurrenik beti lortu ez badut ere. Kontuan izan ditut Euskaltzainditik (Patxi Salaberriren sinaduraz) aurreko lanari bidalitako zehaztapenak eta baita ere, ahoz bildutako toponimoi dagokienean, DEIKER-ek egindako normalizazio-proposamenak.

Ondorioz, oker handirik ez dut egingo esaten badut oraingo honekin aurreko lana osatua eta hobetua gelditzen dela. Baina, aldi berean, osagarri eta hobegarri dela ere esan beharko nuke. Ea inoiz neuk ez bada beste norbaitek hobekuntza lan horri ekiten dion!

1995eko urtarrila

1.- AZTERTUTAKO EREMUA

Arrasateko udalerria da lan honen azterketa-eremua. Gutxi gora-behera, 31 km²-ko hedadura. Arrasate auzo desberdinez osatzen da. Hauetariko batzuk, behialako Ugaran bailara osatzen zuten elizateak, 1353an Mondragoeri atxiki zitzaitzionak: GESALIBAR, GARAGARTZA, URIBARRI eta UDALA. Bestalde, hirigunea inguratzen duten auzategiak: SAN ANDRES, MEATZERREKA, ZALDIBAR eta MUSAKOLA. Arrasateko hirigunea edo hiri barrua ere kontutan hartzen dugu, auzoak adina aztertu ez badugu ere. Eta, azkenik, 1966 arte Aretxabaletako auzo izan zen eta ordudanik Arrasateko den BEDOÑA auzoa.

Leku-izenen fitxategia auzoak azaltzen saiatu gara, baina zailtasun ugari izan ditugula aitorru beharrean gaude. Izan ere, Arrasaten bederen, ez baitaude oso garbi auzoen arteko mugak. Bestalde, bada toponimo multzotxo bat, genuen datu-eskasiagatik, inolako auzori atxikitzerik izan ez duguna.

2.- HELBURUAK

Lan honen helburu nagusia Arrasateko leku-izenen bilketa izan da. Bi eratako bilketa: historikoa, idatzizko dokumentuetatik eskuratu duguna, eta gaurkoa, bertako leku koen laguntzarekin jaso ahal izan duguna.

Bi bide horietatik jasotako toponimoen finkapena edo normalizazioa ere aldez aurretik jarritako helburua zen. Kartografiarako normalizazio-proposamena, azkenean, Deustuko DEIKER institutuaren eskuetan gelditu da. Guziarekin ere, guk hemen toponimo bakoitzaren behin-behineko forma normalizatua sartu dugu, hala egitea egoki iritzi diogulako.

Gaude beka hau eskuratzeko aginduriko helburuak gehiegi eta handi-gurakoegiak ez ote ziren izan. Azterketa honi bukaera hau eman ondoren, aitortu nahi dugu agian hobe zatekeela aipaturiko bi bilketa-eratatik batera (ahozkora, beharbada mugatu izan bagina.

3.- METODOLOGIA

Toponimi bilketak egiteko oinarri metodologikoak aspaldi jarri ziren. Euskal esparrura mugatuz, mende honen hasieran Julien Vinsonek (1909) idatzitakoari jarraiki, metodologia hori sakontzen eta zehazten joan da. Lan horretan saiatu direnen izen guztiak hemen aipatzea merezi ez badu ere, bibliografian ikus daitezkeen Koldo Mitxelena, Ricardo Cierbide eta José María Jimeno Juriok metodologia horretaz idatzirikoa oso kontutan hartzekoa da. Horrexegatik, gure lehen lana horixe izan zen, alegia, aditurek esandakoaz jabetzea.

Bestalde, bagenuen beste bide bat: antzerako lanak egindakoengana jotzea, haien esperientzia praktikoa ezagutzeko. Gertuan genuen bat, Patxi Salaberri Muñoa lankidea, *Legutioko Udalbarritiko toponimiaren* azterketa egina zuena.

Gainera, eta Gipuzkoa mailan, gu lanean hasi orduko baziren zenbait udalen ekimenez egindako azterketa toponimikoak. Berehala kontaktuan jarri eta bisita bana egin genien Andoaingo azterketa toponimikoaren egile den Amaia Usabiagari, alde batetik, eta Usurbilgo toponimiaren azterketan partaide izan den J. J. Furundarenari, bestetik. Arretaz entzun genituen haien esanak.

Ondoren, idatzizko iturriak aztertzen zenbait hilabete generamalarik, Deustuko Unibertsitateko Deiker institutuak Gipuzkoako eta Arabako toponimia kartografiatzeko ardura hartzen zuela jakin genuen. Hala, eta ahozko toponimi bilketari dagokionean, Deiker-ek aurrera eraman asmo duen proiektuarekin bat egiteko eta metodologia dibergente gehiegirik sor ez dadin, haien irizpideei egokitutako gatzaizkie.

Eta hau guztsia esan ondoren, zehatz ditzagun toki-izenen bilketan erabili ditugun irizpide metodologikoak.

3.1. TOPONIMOEN BILKETA

3.1.1. Iturri idatziak

Dokumentazio idatziari dagokionez, material ugariaren artean aukeratu beharrean aurkitu gara.

Arrasateko Udal Artxiboa nahiko aberatsa da, zalantzarak gabe, eta hango paper zahar artean ordu franko eman dugun arren, aztertzeke utzi ditugunak ez dira gutxi. Tamalgarria da, bestalde, Artxiboa oraindik behar bezala katalogatua ez izatea. Alabaina, toponimiaren azterketarako dokumenturik interesgarrienak (zedarriztak, erroldak, e.a.) aztertu ditugulakoan gaude.

Arrasateko Udal Artxiboaz gain, beste artxibo hauetako zenbait dokumentu ere arakatu ditugu:

- Juan Carlos Guerraren artxiboa. Artxiboa Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan dago, baina guk Arrasateko Monterron-en dauden mikrofilmek erabili ditugu.
- Jose Letonaren Artxiboa. Monterron Udal Liburutegian dago.
- Gipuzkoako Foru-Diputazioko Artxiboa (1945eko Amilaramenduak)
- Oñatin den Gipuzkoako Protokoloen Artxibategi Historikoa (hipoteka-liburu garrantzitsuenak)

Hipoteka-liburuei dagozkien aurkibide-liburuak ezagutzen baditugu ere, hor agertzen diren leku-izenak ez ditugu kontutan hartu, lantzean ez baitute jatorrizko izenekiko fideltasunik gordetzen. Gipuzkoako baserri-izenetarako funtsezkotzat jotzen den *Nomenclator de la provincia de Guipúzcoa* ere erabili dugu.

Iturri bibliografikoei dagokienez, egia esateko, gura baino arreta txikia-goa eskaini diegu (Ikus bibliografia).

Dokumentuetako izenak (eta haiei buruzko datu interesgarrienak) fitxetan jaso dira, toki-izen bakoitzarri fitxa bana eskainiz.

3.1.2. Ahozko bilketa

Gorago esan bezala, ahozko bilketarako Deiker-ek proposatu metodologiari lotu gatzartzio.

Horra, labur-labur, gure lan-prozedura:

- 1) Auzo bakoitzean hiruzpala informatzailerentzako laguntza izan dugu.
- 2) Ahal izan dugunean inkesta *in situ* egin dugu, eta oso gutxitan etxe barruan edo bulegoren batean.
- 3) Erabilitako materiala:
 - a) Kassetea eta zintak, elkarritzeta guztiak grabatu ez baditugu ere.
 - b) Toponimo guztiak eta haien gaineko datu interesgarrienak koaderno batean apuntatu ditugu.

- c) Mapak: Gipuzkoako Foru-Diputazioko 1: 5.000 eskalakoak. Alde batetik, gainean, mapa topografiko gardena, eta, bestetik, azpian, hari zegokion ortofotoa. Lehenbizi mapa gardenean lapitzez idatzi ditugu izenak (ahal zenean hedadura ere seinalatuz), eta bukaeran ortofotora aldatu ditugu.
- d) Bestalde, Deiker-ek emandako eskala desberdineta argitaratuak diren beste zenbait mapa ere erabili ditugu, gure lanaren osagari.

Ahozko bilketari dagokiona (mapak, zinta grabatuak, fitxak...) Deiker-ek entregatu genion 1991ko abenduan. Aldi berean, haren kopia bat Arrasateko udaletxeen utzi genuen.

Bilketa lan honetan auzo eta baserri inguruko toponimiari ipini diogu arreta nagusia, hiri barruko toponimia garrantzitsuena baino jaso ez dugularik (hortaz, hori ere eginkizun geratzen da...)

Badago hemen esatekorik aipaturiko lan-metodoak dituen alde onak eta oztopoei dagokienez, baina laburtzera joko dugu.

Esan ere aldez aurretik idatzizko iturrietatik jasoriko informazioa izateak eta ingurunea ezagutzeak sano laguntzen dutela ahozko bilketari ekiterakoan. Izan ere, ahoz izenak sarri itxuraldatuak ematen ditugu, aldaketa morfo-fonetikoak eta bestelakoak direla bide.

Azkenik, bi lerro azentuaz. Azentua ez dut gehienetan seinalatu, tokizenak eskuarki oso garbi eta sistematikoki mendebaldeko ereduaren arabera ebakitzen direlako Arrasaten. Hasierako harridura, erdarak eragindako “Kaparraméndi” ebakidurak sortarazia, esaterako, laster ezabatu zen euskal testuinguruan berezko “Kapárramendi” zela jakitean.

3.2. Normalizazioa

Toponimoen finkapena edo normalizazioa zen hasieran beka honen helburuetariko bat. Gerora ahoz esan izan zaigu gure eskuetan geratzen zela, nahi izanez gero finkapena egin gabe utz genezakeelarik. Gainera, orain Deiker-en gain gelditzen da mapetan bildu dugun Arrasateko toki-izenen normalizaziorako proposamena.

Halaz guztiz, bidezko ikusi dugu toponimo bakoitzari sarrera bat eskaintzea eta saiatu gara sarrera horretan ahalik eta forma normalizaturik egokiena proposatzen. Izan ere, proposamena besterik ez baita, inoiz besteri eztabaидagarria edo onartezina irudi lekiokeena.

Normalizatzerakoan bi kontu dira ebatzi beharrekoak: objektu geografikoekiko sarrera-irizpideak eta hizkuntz irizpideak.

3.2.1. Objektu geografikoekiko sarrera-irizpideak

Hemen erabakiak hartu beharra dago. Zer sartu eta zer ez erabaki behar da. Esaterako, izen berak objektu geografiko desberdinak adieraz ditzake. Adibidez, ZALDIBAR toponimoa hartzen badugu, historian zehar entitate geografiko desberdinak izendatu dituela jakin dezakegu: dorretxea, baserria, ola, errota, pasealekua, zelaia, zubia, auzoa... Orduan, zer egin? Entitate geografiko bakoitzeko sarrera bat ala sarrera bakarra denentzat? Guk sarrera bakarraren aukera egin dugu, ikuspegi linguistikotik ez baitu zentzu gehiegirik bestela egiteak. Baino alderdi geografikoa ez dugu ahaztu gura izan, eta, horregatik, sarrera bakar honen barruan toponimo izen horrekin agertzen diren entitate geografiko guztiak dokumentatu ditugu. Irizpide nagusi honi salbuespen batzuk egin dizkiogu: nagusiki erdarazko CAMINO generikoa daramatenak (CAMINO DE ELORRIO hurrenkera hautatu dugu). Bestalde, NUESTRA SEÑORA DE AREATZA edo SANTA CRUZ DE ITURRIAGA bezalako gutxi batzuk ere hurrenkera horretan normalizatu ditugu, hagionimoak azpimarratzearen.

Noski, ahoz jasotako toponimoekin ez dugu horrela jokatu mapetan ezartzeraoan. Toponimo bakarrak baserria eta inguruan dagoen mendi bat izendatzenean baditu, esaterako, bietan idatzi dugu izen hori.

Bestalde, gerta daiteke leku bat izen desberdinez ezagutua izatea edo, baserriekin jazotzen den legez, lehenago izen bat eta orain beste bat izatea. Horrelakoetan denei ematen diegu sarrera, oharren bidez argitasunak emanet.

Zenbait kasutan toponimo beraren forma diferenteak baina hurbilak ditugu (batzuetan euskal forma eta erdarazkoa). Orduan, aldaera horiek izenburu berean eman ditugu, marraz bereizita: AMATIO / AMATIANO; EKUTIO / EKUTIANO; MONDRAGÓN / MONDRAGOE; PORTALÓN, EL / PORTALOIA / PORTALA...

3.2.2. Hizkuntz irizpideak

Toponimoen normalizazio linguistikorako oso lagungarri da dokumentazio historikoa, eta zenbat eta zaharragoa izan hobeto, orduan eta forma osoagoak jasotzen baitira. Denboraren poderioz, leku-izenak gaurko hiztunengana maiz eboluzionatuak iritsi dira, inoiz laburtzapen eta itxuraldatze larriak gertatu izan direlarik.

Esaterako:

MADARIAGA	>	MAIXA (<i>biru silabatan aboskatua</i>)
URIARTE	>	UXARTE
ZELAIETA	>	SELETA

Honek ez du esan nahi, dena den, kasu guzti-guztietan aldaera zaharra hautatu dugunik. **OBENERREKA**-ren kasuan, esaterako, forma hori hautatu dugu eta ez **OGENERREKA**, dokumentazio zaharrean beti honela agertzen bada ere. Hemen kontutan izan ditugu azken mendeetako dokumentazioa (1731z gero beti **OBENERREKA**) eta gaurko ahozko erabilera.

Toponimoen normalizazioa eskuarki dokumentazioan jasotako formetan oinarritu badugu ere, batzuetan ez da erraza izan erabakia hartzea, historikoaren eta gaurkoaren artean dagoen aldeagatik. Alegia, beharbada gogorra egingo zaio gaurko hiztunari berak **SAATXO** izendatzen duenari **SAGASTITXO** dagokiola esaten badiogu. Kasu honetan forma biak ematea izan daiteke bidea, gero oharretan azalpenak emanez. Hala egin dugu bi kasuorat: **SAGASTITXO** (**SAATXO**) eta **SANTA MARIA** (**SANTA MAIXO**).

Alabaina, kasu guztietai ez dugu lekukotasun historikorik. Lekukotasun bakarra ahozkoia denean, normalizazio-lanaren zaitasuna areagotu egiten da. Kasu hauetan gure joera honakoa izan da: toponimoaren osagaiak argiak direnean forma osoak berreskuratu (**Artiaoste** > **ARTEAGAOSTE**; **Korostaibaso** > **KOROSTEGIBASO**), baina ziur ez gaudenean dauden bezala eman, ortografia batura egokituz (**Intxaulesabaleta** > **INTXAULEZABAleta**; **Etxesanburu** > **ETXESANBURU**).

Ortografialari dagokionean, oro har Euskaltzaindiak emandako erabakiak errespetatzen saiatu gara. Hemen zenbait puntu aipatuko ditugu soilik.

Jakina da Arrasaten hitz egiten den euskalkian *z/s* frikariak eta *tz/ts* afrikatuak ez bereizteko dagoen joera. Eta hori ez bakarrik gaurko hiztunen artean; dokumentazio idatzian ere sekulako nahasmena dago fonema hauei dagokienean, nahasketa zaharra den seinale. Etimologiara jo dugu, ahal izan dugunean, hauek normalizatzerako orduan. Guztiarekin ere, kasu bakoitzean kontuan izan ditugu dokumentazioaren antzinatasuna eta ugaritasuna eta gaurko ebakera. Etimologikoki *z* denean *z* hobetsi da, toponimo guztiak ez itsusteko (**Ausoerrotxa** > **AUZOERROTA**; **Saisulope** > **SAIZULOPE**; **Singire** > **ZINGIRA**), baina batez ere -*st-* ingurunean -*st-* eman dugu, ia beti bat baitatоз dokumentazio historikoa eta gaurko ebakera. Horrela, **BUSTINTZA**, **BUSTINGORRIETA**, **ISTEGI**, **ARISTIZABAL**, **EGUSKITZA**, **BASTERGAIN**, **GASTAÑA-** (espezifikoetan, noski), e.a. idatzi ditugu. Hala ere, eta -*s-z* normalizatzeko argumenturik bazegoen arren, **GAZTELUONDO**, **BAÑEZ** eta **ERENUZKETA** toponimoak -*z-z* normalizatu ditugu, arrazoi soziologikoak edo etimologikoak medio.

“H”-a dela eta, hemengo euskararen ahoskatzen ez denez eta dokumentazio historikoan ere bere presentzia oso urria denez, leku-izen berriren baten edo aparteko kasuren bat izan ezik (**BEHEHO** izenlaguna aurrean doanean: **BEHEKO BASOA**, **BEHEKO SOLOA...**) ez dugu kontutan hartu. Bai, ordea, generikoan. Hortaz: **ARROBI** (baina **KANPANZARKO HARROBIA**), **EGIAUNDI** (baina **ERDIKO HEGIA**).

Ñ eta LL fonema bustiak mantendu egin ditugu hala ahoskatzen edo dokumentazioan idatzirik azaltzen direnean (AGIÑAIN, ARTABILLA). Batzuetan, hala ere, dauzkagun erreferentzia bakarrak idatzizkoak direnean eta hauetan bustidurarik agertzen ez denean, errespetatzea erabaki dugu, nahiz eta hor bustidura egiten dela ziur izan. Izen arruntzat har daitezkeen kasuetan aldaera bustigabea hobetsi dugu: LAMINEN EZKARATZA, SORGINEN ZELAIA (Generikoetan ere bai, noski: AZPIKO GAZTAINA, ORMETAKO GAINA). Modu berean, hitz bukaerako -N eta -L-ak busti gabe eman ditugu (LARRAGAIN, ASPIBIL).

TT fonema palatala ez dugu kontutan hartu, salbu txikigarriak diren hiru izenotan: ITTURRITXIPI, ITTURRITXIPIKO GAINA eta ITTURRITXOPOTOA.

Bi bokal berdinaren arteko elkarketa dagoenean, toponimo historikoetan bokal bikoitza hobetsi da (ETXEERRE, GAZEAGAALDE), salbu arazoren bat dagoenean (Marcohondo (dok.) > MARKONDO). Ahoz jaso direnetan, ebakeraren arabera jokatu da (MIÑAARROA, baina MAITENA). Kasuren batean, nahiz eta ahozkoan bokal bakuna izan, bokal bikoitza hobetsi da dokumentazioan hala denean berandu arte (ZARAA, esaterako).

Elkarketa bokal desberdinaren artean denean forma osoa aukeratu da, horren lekukotasunik dagoenean: MADALENAOSTE, GOIKOETXE, IRAEBAN, OTAERRETA (baina hauen parean IREBAN, OTERRETA...).

Espezifikoetan -A + A elkarketak Arrasateko hizkeran eragiten duen disimilazioa (-IE) kontutan hartu da, -EA normalizatu delarik (Txarie > TXAREA).

Bestelako bokal-elkarketetan batuaren arauak jarraitu ditugu: Birebitterie > BIDEBITARTEA; Arrogoixe > ARROGOIA; Altzarrue > ALTZARROA; Arribotaleku > ARRIBOTALEKUA.

Bokal-harmonia ez dugu errespetatu: Antzule > ANTZULA; Saastibixker > SAGASTIBIZKAR. Baina ziur ez gaudenean, jaso bezala normalizatu ditugu: KURKUXE, MANKULE.

Arrasateko hizkeraren zenbait ezaugarri errespetatzea erabaki dugu bai espezifikoan bai generikoan, horien lekukotasuna dugunean. Hauek dira garrantzitsuenak:

- ATX:** ATXABAL, AXKIBEL, UDALATX, GAZEAGAKO ATXA.
- BARRI:** BIDEBARRI, ITURRIBARRI, TXUKURRILLOKO LUBARRIA.
- BALTZ:** ERREKABALTZ, ITURRIBALTZ, URBALTZ.
- BEIA/PEIA:** ALDABEIA, SAGURDIAPEIA, LARRAGAINGO LAUPEIA.
- ELEX-:** ELEXABE, ELEXGARAI, ELEXOSTE.
- DOI/-DUI:** GASTAÑADOIA, SAGASTADUIA, GONGETAKO PAGODOIA.

Etxe-izenen bukaeran -ena hartu dugu aintzat. Hortaz, -ona-z bukatzen direnak -oena bilakatu ditugu: Alejona > ALEJOENA; Garrona > GARROENA. Izan ere, dokumentazioak sarri aldaera horixe (-oena) erakusten digu, 1773ko adibideok kasu: Mardoena, Geronimo-ena, Lazaro-ena, Perico-ena.

Bestalde, idazketa alderik zalantzan izan gara (eta ziur kontraesanetatik ez garela libratu) gidoia erabili edo ez, loturik ala bereiz idatzi..., eta horrelako kontuekin.

Espezifikoak deklinabide morfemaren bat daramanean, bereiz eman ditugu espezifikoa eta generikoa: ARTEGIKO ERREKA, MENDIKUTEREN BASOA. Etxe-izenetan, halere, ez dugu aintzat hartu irizpide hau: GOIKOETXE, OSTEKOETXEA.

Tartean deklinabide atzizkirik ez denean edo atzizkia erabat argia ez denean, osagaiak lotuta idatzi ditugu: OKENDOSOLO, BOÑABEETXEBARRI, ARANGURENANDIKANO. Espezifikoak deklinabide morfemaren bat izan arren generikoa -eta atzizkia badarama, orduan ere loturik idatzi ditugu: ZABALAINGOERREKETA.

Hagionimoekin bi irizpide erabili ditugu. Posposiziorik ez dutenean bereiz idatzi ditugu: SAN PAULO, SANTA AGEDA. Posposizioarekin doazenean, loturik: SANBIZENTEOSTE, SANTAANAPEIA.

Osagaiak lotzeko gidoirik ez dugu erabili, hiru osagaiko kasu bakarrean izan ezik: ARRAZOLA-MONDRAGON-GARIBAI.

Azkenez, pare bat berba toponimoen hizkuntzaz. Zenbaitetan toponimoa edo toponimoaren zati bat gaztelaniaz ematen zaigu dokumentuetan. Toponimo horren euskarazko ordaina jasoa dugunean, orduan bi sarrera egiten ditugu, bata euskaraz eta bestea erdaraz (ABARRATEGIZAR eta ABARRATEGI VIEJO). Euskarazko ordainik erdietsi ez dugunetan, gaztelaniazko sarrera ipintzen dugu (MOJATEGI DE ABAJO, CAMINO DE MUNAITURRI), geure kabuz itzulpena egin gabe.

4.- LANAREN AURKEZPENA

Irizpide praktiko bategatik toponimoen zerrenda auzoka eta alfabetikoki ematea erabaki dugu, inon kokatzerik izan ez ditugunak multzo batean doazelarik. Horrela aurkezteak, dena den, bukaeran toponimo guztien zerrenda alfabetikoa eskatzen zuen, eta hala egin dugu, bakoitzza zein orrialdetan datorren adieraziz.

Lanaren *corpusa*, hots, idatzizko zein ahozko bilketaren ondorioa, honela aurkezten dugu:

- 1) Goian izenburua, forma normalizatua, beltzez.
- 2) Ondoren dokumentazio historikoan jasotako aldakiak, letra mota arruntez. Aldaki bakoitzeko generikoa ere ipintzen dugu honen berri dugunean, eta segidan urtea eta dokumentua.

Etxe edo baserrien kasuan, XVI. mendeko edo lehenagoko deiturak ere jaso ditugu.

Lekukotasun historikorik ez dugunean, zati hau hutsik agertuko da.

- 3) Gero letra makurrean ahoz jasotako aldakiak, informatzailearen kodearekin eta mapetan duten kokapena azalduz.¹
Mapetara eta fitxetara jo daiteke ahozko leku-izenaren generikoa eta hedadura (hau, egia esan, batzuetan bakarrik dago seinalatua) jakiteko.
Zati hau ere hutsik agertuko da ahozko lekukotasunik ez dugunean.
- 4) Azkenean, beharrezko ikusi dugunean, oharrok ipini ditugu. (Komatxoen artean jarri ditugu idatzizko dokumentaziotik hitzez hitz jasotzen ditugun aipamenak)

Esan behar da dokumentazio historikoari doakionean, ezinbestekoak direnak baino ez direla aurkezten lan honetan. Toponimo baten lekukotasun ugari dugunean, lehentasuna aldaki desberdiniei eman diegu. Zoritzarrez, zenbaitekin izan dugun ugaritasun hori alderantziz gertatu da beste askorekin, usu lekukotasun bakarrarekin jokatu behar izan dugularik.

Gauza bertsua esan daiteke oharrei buruz: jasotako informazioa jarritakoa baino zabalagoa da.

5.- INFORMATZAILEAK

Auzo bakoitzean zenbait informatzaileren laguntza izan dugu, normalean adinez helduak eta inguruaren ezagutzaile onak direnak. Inkestak 1991 urtean burutu ditugu, udaberritik aurrera. HIRI BARRUAri dagozkionak 1994ko udazkenean jaso ditugu.

Horra, beraz, auzoka, laguntzaileen zerrenda eta ondoan bakoitza jaio zeneko urtea eta kodea.²

	<u>Urtea</u>	<u>Kodea</u>
<u>HIRI BARRUA</u>		
Agustin AZKOAGA ALDANONDO	1913	37
Jose AZKARATE ISASMENDI	1910	38
Juan LEIBAR GURIDI	1926	39
Ildefonso URRA ARENAZA	1920	40

BEDOÑA

Jose ITURBE GARAI	1933	30
Angela IRIONDO GESALA	1918	31

¹ Mapa bakoitza lau partetan zatitu dugu (A B D E), ezkerretik eskuinera eta goitik behera (hortaz: erditik gorako partean A (ezkerrean) eta B (eskuinean); eta erditik beherakoan D (ezkerrean) eta E (eskuinean)).

² Deiker-i emandako lanaren fitxetan informatzaileen kodeak 53 zenbakia darama aurretik. Hortaz, hemengo 00 kodea hango 5300-ri dagokio, e.a.

GARAGARTZA

Vitoriano ETXAGIBEL URIZAR	1936	05
Joanito ABARRATEGI	1918	06
Bernardo ZUZAZUBIZKAR ARRIZABALAGA ..	1922	07
Ignacio ZUAZUBIZKAR ETXABE	1947	08
Benigno ZUAZUBIZKAR HERIZ	1910	35
Agapito ERRASTI OZAETA	1919	36

GESALIBAR

Rafael UNAMUNO SOLOGAISTOA	1906	00
Floren AIASTUI UGARTE	1920	01
Luis ZABALA GARAI	1952	02
Sabino LLODIO BENGOA	1916	03
Rosario ARANA ARGARATE	1912	04

MEATZERREKA

Patxi BENGOA SAGASTA	1932	19
Fabian ETXEVERRIA BEREZIBAR	1927	20
Mari Cruz BITERI BEITIA	1914	21
Juan BEREZIBAR IBABE	1930	22

MUSAKOLA

Pedro AGIRIANO URRUTIA	1931	23
Bixente PAGOAGA GALLASTEGI	1946	24
Matias SAGASTA ELORZA	1920	25
Migel URRUTIA EZKIBEL	1935	26
Antonio LARRAÑAGA LARRAÑAGA	1920	27

(Zubillagakoa)

SAN ANDRES

Jesus IRIBECAMPOS OKINA	1917	32
Jose Bixente ETXABE ARREGI	1922	33

UDALA

Felipe MURGOITIO MADARIAGA	1916	15
Daniel IBABE ZUMELAGA	1926	16
Patxi EGIDAZU ZARRAOA	1902	17
Jose Joakin CASTILLO SANTAMARINA	1948	18

URIBARRI

Dionisio PAGALDAI LEIBAR	1930	09
Carmen ABARRATEGI ERAÑA	1924	10
Imanol MARKAIDE SORALUZE	1952	11
Santiago ARANA ELKOROBARRUTIA	1922	12

Luis ITURBE MILIKUA	1933	13
Julian BALANZATEGI ALTUNA	1945	14

ZALDIBAR

Jose Leon LARRAÑAGA LARRAÑAGA	1910	28
Mateo ITURBE URIBE	1919	29
Jose Mari ARABAOLAZA ALZELAI	1908	34

6.- LABURDURAK³

Ad.	= adibidez
dok.	= dokumentazioa
Ik.	= ikus
m.	= mendera
or.	= orrialdea
t.	= tomoa

Bestalde, dokumentazioan maiz azaltzen diren laburduren forma osoak eman ditugu, ziurtasun osoa dugunean. Hauek dira ohikoenak:

Anteyg ^a	= Anteyglesia
cas ^a .	= caseria
dho, dha	= dicho, dicha
dla	= de la
Dn.	= Don
Yg ^a , Yglia	= Yglesia
nro, nra	= nuestro, nuestra
p ^a	= para
pte.	= parte
q	= que
S., Sr	= Señor
S ^a .	= Señora
Sn., Sta.	= San, Santa
V ^a	= Villa

7.- BIBLIOGRAFIA**7.1. Erabilitako dokumentazioa⁴**

³ Bibliografiaren laburdurak hari dagokion atalean.

⁴ Erabilitako dokumentazioan eta iturri bibliografikoetan jartzen ditugun laburdurak arbitrarioak dira. Arrasateko Udal Artxiboa katalogazioa bukatua ez izateak sarritan dokumentuarri buruzko zenbaitei zehaztapen ematera behartu gaitu.

7.1.1. Arrasateko Udal Artxiboa

A = Lº 3: *Arcipreste*. Urteak: 1628-1653

AH =(Alkatearen hautaketa) Paper-sorta bat:

Eleccion de los ssres Alcalde y regimo. Urteak: 1661-1662

AZ = (Auzobideen Zerrenda). Ayuntamiento Pleno. 1899-1901. Libro 14, Sección A, Neg. 1. (1899ko ekainaren 27ko ohiko bilkura, 11-12 or.).

D = Denetarik)

Lº 6: *Varios. Cartas de Garibay. Testamento*. Urteak: 1515-1720

EAD = (Erdi Aroko Dokumentuak) Hemen sartzen ditut 1400-1500 bitarteko dokumentu zaharrak, Udal Artxiboan bi kutxatan gordeak daudenak. Horrela: EAD-1, EAD-2, EAD-3... Dokumentu hauen irakurketarako Eusko Ikaskuntzak egindako transkripzioak (Donostia Eusko Ikaskuntzaren egoitzan daudenak) erabili ditut, baina erreferentzi gisa soilik. Izan ere, sarritan toponimoen transkripzioak ez baitira oso zuzenak.

EF = (Eskola-Fundazioa)

Paper-sorta handi bat, gauza desberdin askorekin, karpeta baten barruan. Azalean: *Fundación de Escuela (Marquina)*

Carta del Rey 1766

Revoluciones 1766

Varios

Urteak: 1573-1766

Esk. = (Eskriturak)

Artxiboan kutxa mordo bat dago eskriturekin. Parentesi artean jartzen dugun zenbakia artxiboan kutxak daramana da. Eskribauaren izena ere ematen dugu eta honen ondoren urteak.

Esk. (5): Jose Joaquin de Gorosabel (1829-1832)

Esk. (6): Jose Joaquin de Gorosabel (1832-1834)

Juan Fco. Aspiazu (1849)

Esk. (7): Vicente Antonio de Oquendo (1794-1813)

Esk. (8): " " " (1814-1816)

Esk. (9): " " " (1816-1818)

Esk. (10): Gil de Echagüibel (1793-1839)

Joseph Mª de Echagüibel y Orbe (1776-1812)

Esk. (11): Antonio de Oquendo (1804-1807)

Esk. (12): " " (1802-1803)

Esk. (13): " " (1800-1801)

Esk. (14): " " (1796-1799)

Esk. (15): " " (1794-1795)

Esk. (16): " " (1792-1793)

GA = (Gesalibarko auzia)

Lº 132: *Pleito sobre el uso de tierras concegiles en Santa Agueda de Guesalibar* (año 1738)

(Liburu honetan askoz lehenagoko dokumentuen zatiak kopiatuak daude)⁵

Gaz. = (Gazteluondo)

⁵ Bai dokumentu honetan eta bai iturri bibliografikoetako PHG laburdura daraman liburuan maiz antzinagoko dokumentuen kopiak edo aipamenak egiten dira. Hala denean, antzinagoko dokumentuaren urtea jartzen dugu, baina asterisko batekin.

Karpeta batean: *Portales. Gasteizondo y Arrabal.* Urteak: 1768-1780

(Ud.-ekin batera karpeta berean)

HO = (Herri-ondasunak)

Laburdura honekin artxiboan *Documentos sobre bienes comunales* izendatzen direnak ematen ditugu. Parentesi arteko zenbakia artxiboan daramana da. Eta ondoren urtea(k).

HO (I): 1475-1483

HO (II): 1630-1780

HO (III): 1601-1731

HO (IV): 1767-1814

HO (V): 1808

HO (VI): 1814-1912

HO (VII): 1738-1750

HO (VIII): 1779-1781

HO (IX): 1822

HO (X): 1779-1844

HO (BA) = Documentos sobre terrenos comunales. Valuación de las fincas de desamortización.

Urtea: 1866

HO (S) = Documentos sobre terrenos comunales. Casería Salturri

Urtea: 1801

KO = (Kabildoaren ondasunak)

Paper-sorta bat: *Remate de arriendos de los vienes raices del Cavigo. Ecco. de esta villa.*

Urteak: 1749-1774

M = (Mintegia)

VIVERO. *Libro de asientos de los biveros que se ponen de arboles diferentes...* Urteak: 1740-1749

ME = (Monumentu-Etxea)

Paper-sorta bat, karpeta baten barruan:

Casa del Monumento. Urteak: 1765-1768

MT = (Markinaren Testamentua)

Orri pila batez osaturiko paper-sorta. Gaietariko bat:

Testamento de Marquina. Urteak: 1578-1579

OM = (Oro-Miota)

Liburua: *Hacienda de Oro-Miota.* Urtea: 1790

PC = Erroldak dira hauek. Artxiboan: *Padrones y censos. Artxiboko laburdurak* darabiltzagutu hemen:

PC 2: Origen de Familia. Urtea: 1773

PC 2 (3/2): 1807

PC 2 (4/2): 1812

PC 2 (5/2): 1813

PC 4 (7/4): 1887

PC 4 (9/4): 1889

PC 4 (16/4): 1898

PL = Erroldak dira hauek ere. Hemen ere artxiboko laburdurak ipiniko ditugu:

PL (1): Padrón Habitantes. Urteak: 1877-1893

PL (7): Padrón de Habitantes. Urtea: 1930

PL (13): Padrón Municipal. Urtea: 1960

T = Karpeta baten barruan: Lº 24: *Tasa*. Urteak: 1428-1742

Ud. = (Udaletxea)

Documentos. Casa Ayuntamiento. Urteak: 1753-1780

(Gaz.-ekin batera karpeta berean)

ZL = (Zuhaitz-Landaketak)

Plantaciones de árboles. Urteak: 1749-1819

7.1.2. Beste artxiboetako dokumentuak

1C = Juan Carlos Guerraren Artxiboa. Artxibo honen mikrofilmeak Monterron Udal Liburutegian daude. Mikrofilmeek daramatzaten laburdurak erabiltzen ditut. Hortaz: 1C1, 1C2, 1C3, e.a. Mikrofilme bakoitzean datu hauek ematen dira: 1C1, (zenbakia), (or.). Adibidez: 1C5, 4320, 8 or. Erdi Arotik hasi eta XX. menderarteko dokumentu ugari dago.

AM = (Amilarameuduak)

Amillaramiento de la Riqueza rústica. Urtea: 1945

(Donostiako Okendo kalean dagoen Gipuzkoako Foru-Diputazioko Artxiboa)

APA = Arrasateko Parroki Artxiboa. Bi dira erabilitako dokumentuak (laburduraren ondoko zenbakiak armairua adierazten du eta bigarrenak karpeta):

APA 1-38. Urtea: 1759

APA 3-39 (10). Urtea: 1737 ("(10)" hori dokumentuaren zenbakia da)

Hip. = (Hipoteka-liburuak)

Gipuzkoako Protokoloen Artxibategi Historikoan (Oñati) daude liburu hauek. Bakoitzean liburuak duen izenburua eta Artxiboa duen "signatura" (Sign.) jarriko dugu.

Hip. 1: *Libro segundo (moderno) correspondiente a la villa de Mondragón.* Urteak: 1856-1862 (Sign.: H-308)

Hip. 2: *Libro 2º de Ypotecas del Partido de la Ante Iglesia de Garagarza...* Urteak: 1797-1845 (Sign.: H-309)

Hip. 3: *Libro 2º de Ypotecas del Partido de la Ante Iglesia de Santa Agueda...* Urteak: 1800-1844 (Sign.: H-310)

Hip. 4: *Libro 2º de Ypotecas del Partido de la Ante Iglesia de Udala...* Urteak: 1808-1844 (Sign.: H-311)

Hip. 5: *Libro 2º del Partido de la Ante Yga. de Uribarri....*

Urteak: 1798-1846 (Sign.: H-312)

Hip. 6: *Libro de registro: Artxabaleta: Bedoña.* Urteak: 1801-1844 (Sign.: H-256)

Hip. 7: *Libro de registro. Mondragón.*

Urteak: 1768-1793 (Sign.: H-583)

Hip. 8: *Libro de registro: Mondragón.*

(*Libro 2º de Ypotecas del Partido de la Parroquiania de esta villa de Mondragón, que dio principio el año de 1797*)

Urteak: 1797-1831 (Sign.: H-305)

Hip. 9: *Libro 3º de hipotecas del Partido de dicha villa (Mondragón).* Urteak: 1832-1845
 (Sign.: H-306)

Hip. 10: *Libro primero correspondiente a la villa de Mondragón.*
 Urteak: 1845-1856 (Sign.: H-307)

JLA = Jose Letonaren Artxiboa. Monterron Udal Liburutegian dago. Laburdurak datu hauek ditu: JLA (kutxaren zenbakia) - (karpetaren zenbakia). Ad. JLA 9-341.

LENIZ = *Apeamiento y amojonamiento del Valle Real de Leniz.* Urtea: 1490
 (Aretxabaletako Udal Artxibategian)

Nom. = *Nomenclator de la Provincia de Guipúzcoa.* 1857-1864 urteetan Gipuzkoako Diputazioak argitaratua (Guk lanean 1857 datarekin aipatu dugu)

7.2. Erabilitako iturri bibliografikoak

ABAB = ARZELUS GARAI, Gotzon, 1995, *Arrasateko baserri-auzoetako bideak,* Arrasateko Udala.

APUN = LETONA ARRIETA, Jose, 1983, "Apuntes para una historia de las ferrerías y molinos que han existido en el término municipal de Mondragón- Arrasate", *Anuario de Eusko-Folklore* 31, 143-151.

ARRA = Oktubre taldea, 1987, *Arrasate 1936. Una generación cortada.*

Catal. = LETONA ARRIETA, Jose, 1980, "Catálogo con situación, de fuentes del término municipal de Mondragón", *Anuario de Eusko-Folklore* 29, 5-35.

CDM = MARTINEZ DIEZ, Gonzalo, GONZALEZ DIEZ, Emiliano, MARTINEZ LLORENTE, Félix J., 1991, *Colección de documentos medievales de las villas guipuzcoanas (1200-1369)*, San Sebastián, Diputación Foral de Gipuzkoa. Laburduran, CDM ondoren dokumentuaren zenbakia eta liburuko orrialdea jartzen dugu. Adibidez: CDM-24, 37 or.

DGHE = Real Academia de la Historia, 1802, *Diccionario geográfico-histórico de España,* Madrid.

DGHE-II: 2. tomoa

DGHE-III: 3. tomoa

DGHE-IV: 4. tomoa

ETNO = LETONA ARRIETA, Jose, "Etnografía de Garagarza", *Anuario de Eusko-Folklore* 28, 1979, 9-64.

GARA = JAUREGUI-ARRABURU y LEIBAR, Justo de, 1949, *Anteiglesia de Garagarza (Mondragón). Datos para una monografía, extractados, principalmente, de su Archivo Parroquial* (Argitaratu gabea).

Gari. = GARIBAY y ZAMALLOA, Estevan de, 1571, *Compendio historial de las chronicas y universal historia de todos los reynos de España*, Amberes.

GGPV = MÚGICA, Serapio, 1921, "Guipúzcoa", in *Geografía general del País Vasco* (Dirigida por F. Carreras Candi), Barcelona. (Guk La Gran Enciclopedia Vasca-k egindako faksimila erabili dugu)

MOND = LETONA, Jose & LEIBAR, Juan, 1970, *Mondragón*, San Sebastián, Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián.

MSC = LETONA, Jose, 1975, *Mondragón. Sus calles*, San Sebastián, Caja de Ahorros

- Provincial de Guipúzcoa.
- MUS = Iglesia de San Isidro Labrador, 1970, *Musakola. XXV aniversario de la Iglesia de San Isidro Labrador 1945-1970*, Vitoria.
- OH = (Oñatiko historia)
- AYERBE IRIBAR, M^a Rosa, 1985, *Historia del Condado de Oñate y Señorio de los Guevara (s. XI-XVI), II. Documentos*, San Sebastián, Diputación Foral de Guipúzcoa.
- OH (Dok-13): Documento nº 13. Urtea: 1395
- OH (Dok-17): Documento nº 17. Urtea: 1411
- PHG = GUERRA, Juan Carlos de, 1929, *Ensayo de un Padrón Histórico de Guipúzcoa*, San Sebastián, Joaquín Muñoz-Baroja.
- TAV = MICHELENA, Luis, 1964, *Textos Arcaicos Vascos*, Madrid, Minotauro.
- VALLE (I) = LETONA, Jose & LEIBAR, Juan, 1975, *Valle de Leniz (Primera parte). Generalidades y Salinas*, San Sebastián, Caja de Ahorros Municipal de San Sebastian.
- VALLE (II) = LETONA, Jose & LEIBAR, Juan, 1975, *Valle de Leniz (Segunda parte). Arechavaleta y Escoriaza*, San Sebastián, Caja de Ahorros Municipal de San Sebastian.



7.3. Bibliografia orokorra⁶

- AZKUE, Resurrección María de, 1969, *Diccionario vasco-español francés*, (1905eko edizioaren faksimila), Bilbao, Edit. La Gran Enciclopedia Vasca.
- CIERBIDE, Ricardo, 1985, "Onomasticon Vasconiae: Consideraciones metodológicas", *FLV* 45, 175-182.
- COROMINAS, J., 1972, *Tópica Hespérica, I, II*, Madrid.
- EIBARKO UDALA. EGO IBARRA BATZORDEA, 1995, *Eibarko hiri-toponimia*, Irún, Euskaltzaindia.
- EUSKALTZAININDIA, 1979, *Euskal Herriko Udalen Izendegia*, Bilbo, Euskaltzaindia.
- FRAGO GRACIA, Juan A., 1991, "Problemas, métodos y enseñanzas de la toponimia", in *Actas de las I Jornadas de Onomástica, Toponimia. I Onomastika Jardunaldiak agiriak. Toponimia* (Gasteiz, 1986), Bilbo, Euskaltzaindia, 199-220.
- GONZALEZ DE VIÑASPRE, L. R. & SANTANO, F.J., 1988, "Zenbait gogoeta eta proposamen Euskal Komunitate Autonomoan egiten ari den proiektu kartografikoa", in *II. Euskal Mundu-Biltzarra. Euskara Biltzarra. II. Atala: Hizkuntza eta Gizartea*, (II. alea), Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 375-380.
- HUDON, Hélène, 1986, *Méthodologie des inventaires toponymiques* (Dossiers toponymiques, 16), Gouvernement du Québec.
- IRIGOYEN, A., 1991, "Problemas de nomenclatura en la elaboración de mapas topográficos en áreas vascófonas de administración romanizante hasta el presente", in *Actas de las I Jornadas de Onomástica, Toponimia. I Onomastika Jardunaldiak agiriak. Toponimia* (Gasteiz, 1986), Bilbo, Euskaltzaindia, 159-171.
- JIMENO JURÍO, José María, 1991, "Recogida de toponimia. Ámbito, fuentes, metodología. La experiencia navarra", in *Actas de las I Jornadas de Onomástica*,

⁶ Hemen batez ere esku artean erabili ditugunen artetik interesgarrienak aipatzen dira.

- Toponimia. I Onomastika Jardunaldien agiriak. Toponimia (Gasteiz, 1986)*, Bilbo, Euskaltzaindia, 99-110.
- JIMENO JURÍO, José María eta beste, 1991, *Nafarroa: toponimia eta mapagintza / Navarra: toponimia y cartografía*, (2. argitarapena. Zuzenduta eta Osatuta), Pamplona, Nafarroako Gobernua.
- JIMENO JURÍO, José María & SALABERRI ZARATIEGI, Patxi, 1994, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Pamplona / Iruña*, Iruñea, Euskaltzaindia.
- KNÖRR, Endrike, 1991, "Sobre la recogida y el estudio de la toponimia en Álava: pasado y presente", in *Actas de las I Jornadas de Onomástica, Toponimia. I Onomastika Jardunaldien agiriak. Toponimia (Gasteiz, 1986)*, Bilbo, Euskaltzaindia, 65-92.
- LIZUNDIA, J.L. & KNÖRR, Endrike, 1976, "Herri eta herritarren izendegia", *EUSKERA XXI* (2. aldia), 287-315.
- MICHELENA, Luis, 1971, "Toponimia, léxico y gramática", *FLV IX*, 241-268.
 1989, *Apellidos vascos*, (4. argit.), San Sebastián, Edit. Txertoa.
 1991, "Hitz eta izenen jatorriaz", in *Actas de las I Jornadas de Onomástica, Toponimia. I Onomastika Jardunaldien agiriak. Toponimia (Gasteiz, 1986)*, Bilbo, Euskaltzaindia, 25-34.
- MOLL, Juli & TORT, Joan, 1985, *Toponimia i cartografia. Assaig de sistematització*, Barcelona, Institut Cartogràfic de Catalunya.
- MOREU-REY, Enric, 1974, *Toponinia urbana i onomàstica vària*, Palma de Mallorca, Ed. Moll.
 1991, "Recogida, clasificación, normalización y oficialización de un corpus topónimico: consideraciones críticas sobre su problemática según nuestra experiencia en Cataluña", in *Actas de las I Jornadas de Onomástica, Toponimia. I Onomastika Jardunaldien agiriak. Toponimia (Gasteiz, 1986)*, Bilbo, Euskaltzaindia, 37-47.
- MUJICA, Luis María, 1989, *Euskal Toponimiazko materialeak. Arrasate, Elgeta, Eskoriatza*, (XVII. alea), Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- MUÑAGORRI ETXABE, Miguel Angel, 1991, "Euskal Komunitate eta Nafarroan toponimoen ofizialtasun eta seinaleztapenaz legeria eta beronen aplikazioa", in *Actas de las I Jornadas de Onomástica, Toponimia. I Onomastika Jardunaldien agiriak. Toponimia (Gasteiz, 1986)*, Bilbo, Euskaltzaindia, 335-341.
- ROSKUBAS, Ander, 1987, "Ekdotika kartografikoa. Bilbo eta Arrigorriagako toponimia eta mapagintzaz", *ENSEIUCARREAN 3*, 35-63.
- SABIROU i HERRERO, Benjamí, 1991, "Evolución de la toponimia en Catalunya: síntesis histórica y situación actual", in *Actas de las I Jornadas de Onomástica, Toponimia. I Onomastika Jardunaldien agiriak. Toponimia (Gasteiz, 1986)*, Bilbo, Euskaltzaindia, 225-235.
- SALABERRI ZARATIEGI, Patxi, 1994, *Eslaba aldeko euskararen azterketa toponimiaren bidez*, Iruñea, Euskaltzaindia.
- SAN MARTIN, Juan, 1991, "Introducción a la toponimia guipuzcoana. Gipuzkoar toponomastikarako sarrera", in *Actas de las I Jornadas de Onomástica, Toponimia. I Onomastika Jardunaldien agiriak. Toponimia (Gasteiz, 1986)*, Bilbo, Euskaltzaindia, 249-277.
- USABIAGA FLORES, Amaia, 1994, *Andoaingo toponimia*, Iruñea, Euskaltzaindia.

VINSON, Julien, 1909, "Importance des noms topographiques, lieux-dits, etc., pour l'étude de la langue basque", *RIEV* III, 349-356.



HIRI BARRUA

ABALOS

ABALOS, casa (...) titulada de	1846	Hip. 10, 13 or.
--------------------------------	------	-----------------

Ob.: “una casa sita y notoria en la calle del medio (...) titulada de Abalos”. Confinante “por oriente con las barbacanas y corral y casa de Mitarte” (1846)

ABARRATEGI

ABARRATEGUI, casa de	1625	ISAS, 117 or.
----------------------	------	---------------

ABENDAÑO

ABENDAÑO, Juan Perez (deitura)	*1429	PHG, 13 or.
ABENDAÑO, casa de	*1461	PHG, 460 or.
ABENDAÑO, Yvañes de (deitura)	1515	D
ABENDAÑO, casa de	*1571	PHG, 459 or.
ABENDAÑO, casa de	*1625	PHG, 460 or.
ABENDAÑO, casa principal de	1795	Esk. (15), 37 or.
ABENDAÑO, la [casa] que llaman de	1819	Hip. 8, 121 or.
AVENDAÑO, casa titulada de	1832	Esk. (5), 104 or.

Ob.: ITURRIOTZ kalean, plazan.

ABENDAÑOKOA

ABENDAÑOCUA, casa conocida con el nombre de	1850	Hip. 10, 66 or.
ABENDAÑOCOA, la casa llamada	1853	Hip. 10, 132 or.

Ob.: Ik. ABENDAÑO.

ABERASTEGI

ABERAZTEGUI, casa de	1625	ISAS, 117 or.
----------------------	------	---------------

ALDAI

ALDAY, la casa heredad y manzanal de	*1577	PHG, 481 or.
ALDAI, un manzanal en el termino de	1731	HO (III), 58 or.
ALDAIA, heredad de	1741	1C13, 4488, 50 or.
ALDAY, la casa, heredad y manzanal llamado	1789	OM, 3 or.
ALDAY, heredad sita en el termino que dizen de	1790	Hip. 7, 233 or.
ALDAY, heredades llamadas	1792	OM, 129 or.
ALDAY, heredad existente en el termino llamado de	1829	Hip. 8, 217 or.
ALDAY, en	1853	Hip. 10, 123 or.
ALDAY, colina de	1924	TAV, 88 or.
ALDAY, frente a	1975	MSC, 100 or.

Ob.: “...de la casa, heredad y manzanal de Alday, con este nombre ha quedado una heredad sembradía de mucha extensión sobre el camino Real desde la Magdalena a Legarra, pero de la casa no hai noticia, ni de donde existio ni de quando se germó” (1789)

ALDEKO SOLOA			
ALDECO-SOLUA, pradera	1945	AM, 347 or.	

ALTAMIRAPEA			
ALTAMIRA PEA, huerta / cereal / pradera	1945	AM, 105 or.	

ANDIKANOLOIOLA			
ANDICANO-LOYOLA, casa	XX m.	JLA 9-315	

Ob.: "en la Calle del Medio nº 20 (Café, frente a la Plaza). Convertido en primer Palacio de Monterrón" (XX m.)

ANGEL, EL			
SALINAS, o del ANGEL, casa llamada de	1798	Hip. 8, 6 or.	
ANGEL ó SALINAS, casa llamada del	1799	Esk. (14), 20 or.	
ANGEL, casa titulada del	1804	Esk. (11), 157 or.	
ANGEL, casa titulada del	1823	Hip. 8, 142 or.	
ANGEL, casa titulada del	1831	Esk. (5), 2 or.	
ANGEL ó de SALINAS, la casa titulada del	1854	Hip. 10, 167 or.	
ANGEL, hermita del	1768	Gaz., 9 or.	

Ob.: GAZTELUONDOn. Ik. SALINAS.

"la casa titulada del Angel ó de Salinas y su huerta radicante en el termino de Gazteluondo de la referida villa de Mondragon cuya casa consta de bodegas, piso principal, segundo y desvan, y esta señalada con el numero ciento sesenta y cuatro, y la huerta que se halla contigua a la misma de media fanega de sembradura poco mas ó menos circundada de paredes, confinante todo por oriente con callejon propio de la finca, con casa de Nicolas Altuna y huerta de Don José de Sola; mediiodia con la carretera general, poniente con heredad de la casa llamada Ynchaurondo, y norte con la calle publica de Gazteluondo" (1854)

ANGEL DE LA GUARDA, EL			
ANGEL DE GUARDA, hermita del	1790	Esk. (10)	
SANTO ANGEL, ermita del	1970	MOND, 83 or.	
SANTO ANGEL DE LA GUARDA, ermita del	1975	MSC, 38 or.	

Ob.: GAZTELUONDOn. 1771n desagertu zen.

ARANGUREN			
ARANGUREN, Jacobo (deitura)	*1417	PHG, 62 or.	
ARANGUREN, mayorazgo y palacio de	*XVII m.	PHG, 51 or.	
ARANGUREN, mayorazgo de	*1655	PHG, 62 or.	
ARANGUREN, casa de	*1788	PHG, 63 or.	

Ob.: ZARUGALDEN. "D. Santiago Elias de Aranguren y Alava, sucedió a la casa de Aranguren en Zarugalde y fue en ella el 1º que heredó el título de Conde de Monterrón" (1788)

ARANGURENANDIKANO

ARANGUREN-ANDICANO, Palacio de XX m. JLA 9-315

Ob.: Hau eta ARANGUREN bat bera dira.

ARBOLAPETA

ARBOLAPETA, en 1986 JLA 2-55

ARBOLAPETA 39 88-33 E

Ob.: MONTERRON jauregiaren aurrean. Izen hau gerraosteko da. ·

AREAGA

AREAGA, casa de 1625 ISAS, 117 or.

ARESO

ARESO, casa titulada de 1775 Hip.7

ARESO, casa llamada de 1800 Esk. (13), 65 or.

ARESO, casa llamada de 1810 Hip. 8, 46 or.

Ob.: ARRABAL DE ABAJO.

ARISPE

ARISPE, Pedro Ochoa (deitura) *1571 PHG, 76 or.

ARISPE, la cassa de 1696 1C4, 4296, 6 or.

ARIZPE, la cassa de 1696 1C4, 4296, 7 or.

ARISPE, las huertas de 1755 KO

ARISPE, casa de 1771 Hip. 7

Ob.: FERRERIAS kalean.

ARKUPE

ARKUPE 39 88-33 E

Ob.: Udaletxeko arkupea.

AROZKALE

AROSCALE, Canton de 1518 1C1, 4181-5, 63 or.

AROSCALE, en 1566 1C10, 4424, 1 or.

AROSCALE, las casas de 1596 1C7, 4347-1, 2 or.

AROSCALE, calle de 1599 1C7, 4346-9, 36 or.

AROZCALE, la casa que tenemos en 1604 1C6, 4337-35, 73 or.

AROSCALLE, calle de 1615 EF, 37. gaia

AROSCALE, azia la parte o calle de 1618 1C7, 4338-5, 21 or.

AROZCALE, calle de 1654 1C5, 4305-5, 18 or.

AROSCALE, un solar en la calle de las ferrerías llamada	1667	1C5, 4305-1, 2 or.
AROSCALE, calle de	1731	HO (III), 52 or.
FERRERIAS o AROZCALE, calle llamada de las	1737	APA 3-39 (10), 96 or.
AROZCALLE, casas de la calle de	1775	Hip. 7
AROZCALLE ú OLACALLE, una casa (...) radicante en	1850	Hip. 10, 73 or.
AROSCALE, AROSCALLE, casas en	1859	Hip. 1, 40 or.

Ob.: Ik. FERRERIAS

ARRABAL, EL

REVAL, las guertas grandes del	1671	1C4, 4281, 2 or.
ARRABAL, casa sita en el	1738	1C11, 4444-2, 5 or.
REVAL, huerta en	1741	1C13, 4488, 50 or.
ARRABAL, la huerta del	1755	KO
RABAL	1773	PC 2, 7 or.
ARRABAL; REBAL, Portal de	1780	Gaz.
ARRABAL, terreno en el (...) de la villa	1833	Esk. (5), 74 or.
RABAL, el puente del	1834	Esk. (5), 241 or.
ARRAVAL, calle del	1860	Hip. 1, 85 or.
ARRABAL	1930	PL (7), 110 or.

ARRABAL DE ABAJO, EL

ARRABAL DE ABAXO, en el	*XV m.	PHG, 479 or.
REBAL DEBAXO, en el	1562	1C6, 4337-107, 274 or.
ARRABAL DE ABAXO, en el	1591	1C6, 4337-131, 345 or.
RABAL DE BAXO, casas (...) en el	1593	1C2, 4245-39, 129 or.
RAVAL DE ABAXO, la casa del	1603	1C6, 4337-112, 291 or.
REBAL DE ABAXO	1615	EF, 37. gaia
ARRAVAL DE AVAXO, casa en el	1731	HO (III), 69 or.
RAVAL DE AVAX	1731	HO (III), 68 or.
ARRABAL DE ABAJO o LA MAGDALENA, por la parte del	1737	APA 3-39 (10), 78 or.
ARRABAL DE ABAJO, en el	1789	OM, 4 or.
RABAL DE ABAJO, barrio del	1813	PC 2 (5/2), 3 or.
ARRABAL DE ABAJO, calle del	1851	Hip. 10, 94 or.
ARRABAL DE LA MAGDALENA 6 DE ABAJO, casa sita en el	1860	Hip. 1, 81 or.
ARRABAL DE ABAJO o MAGDALENA, el	1975	VALLE(I), 69 or.

Ob.: Ik. ERREBALA

ARRABAL DE ARRIBA

GAZTELUHONDO 6 ARRABAL DE ARRIBA, arrabal llamado	1802	DGHE-III, 31 or.
--	------	------------------

